



MUNGIA

EUSKARAZ BARRA-BARRA

ZIURTAGIRIAREN JARRAIPENA

2025



HORI-HORI SA

Arbidea, 1 - 48001 Bilbo (Bizkaia)

Tel. 688 618 816

www.hori-hori.eus



EUSKARAZ BARRA BARRA markaren helburu nagusia Euskal Herriko eta kasu honetan Mungiako establezimenduetan euskara erabiltzeko aukera bermatzea da.

2023an hasitako bideari utsita, 2025eko apirilean Mungiak deialdi berria atera zuen eta urrian ekin zitzaion markaren ikuskapen/jarraipen lanari. Aurreko urteetako lokalak eta 2026an izena emandakoak batuta, 53 establezimendu-entitateei egin zaie EUSKARAZ BARRA BARRA bereizgarriaren jarraipena. Horrela adierazita dago Mungiako Udaleko webgunean ([EUSKARAZ // MUNGIAN](#)).

Datu horiek erreferentzia gisa hartuta, 2025eko azaroan bideratutako lanketan honako helburuak jarri zitzaizkion prozesu honi:

- Merkataritzako teknikaria berria izanik, lehen harreman bat izatea Mungian EUSKARAZ // marka eskuratuta duten establezimendu-entitateetako langile edota arduradunekin.
- Establezimendu-entitate hauetan EUSKARAZ // markaren baldintza minimoak betetzen ote duten ikuskatzea.
- EUSKARAZ BARRA BARRA marka duten establezimendu-entitate hauen informazioa eguneratzea.
- EUSKARAZ BARRA BARRA marka duten establezimendu-entitateetako langile-arduradunei gure laguntza eta prestutasuna eskaini, euskararen erabilera handitzeko eta indartzeko.

EUSKARAZ BARRA BARRA marka eskuratzeko GUTXIENeko BALDINTZAK

Barra-Barra eskuratzeko gutxieneko baldintza establezimenduan bezero euskaldunaren mezuak ulertzea da, alegia, bezero hori hizkuntzaz aldatzera ez behartzea.

Establezimendua herritarrentzat irekita dagoen bitartean, beti ziurtatu behar da gutxienez langileren bat egongo dela herritar euskalduna artatzeko. Horrenbestez, Barra-Barra eskuratzeko baldintza ez da establezimenduko langile guztiek euskaraz ulertzea, baizik eta beti egotea bat edo batzuk ulertzeko edo artatzeko gaitasuna dutenak.

Mungian Euskal Herri mailan erabili diren irizpideak errespetatu dira; markaren helburua uneoro gutxienez bezeroak euskaraz artatu ditzaken langile bat egotea da.

LANKETAREN PROZEDURA

Aurreko atalean adierazita agertzen denez, 53 lokali egin zaie bisita.

- **BISITALDIETAKO GALDETEGIA.** Ikuskatze prozesu honetan bisitaldi bakoitzeko galdera zehatzak egiteko aurreko urteetan erabilitako fitxa hartu dugu eredu bezala. Fitxa horietan honako datuak hartzen ziren bisitaldi bakoitzeko:
 - Establezimendu-entitatearen datuak (helbidea, arduraduna, telefonoa...).
 - Norekin egiten den elkarrizketa.
 - Establezimendu-entitateak zenbat langile dituen.
 - Horietatik euskaraz hitzegiteko ahalmena duten langileen kopurua, eta beste langileen euskara maila.
 - Amaitzeko, euskaraz barra barra markaren baldintzak betetzeko aukerarik ote duten.

BISITALDIETAN JASOTAKO EMAITZAK

Bisitaldiak egiteari azaroaren 5ean ekin zitzaion, eta azkenak azaroaren 19an egin ziren. Hala ere, entitate batzuetan ez zenez aukerarik izan zuzeneko harremana edukitzeko, batez ere, ordutegi arrazoiatatik, azken bisitaldiak urtarrilean egin dira, eta horiekin amaitutzat eman da Euskaraz // establezimenduen 2025eko jarraipenaren lanketa.

ONDORIOAK

EUSKARAZ BARRA BARRA marka duten establezimendu-entitate guztien ikuskatze prozesua amaitzeko, akademia batzuekin ere egin da harremanena.

2024eko zerrendatik abiatuta, hauexek dira azpimarratu beharreko aldaketak:

- 52ko zerrendatik hiru establezimendu itxi egin dira eta bat esku-aldatu (oraingok ez dute ulermena bermatzen).
- Beste 48 establezimendu-entitateetan, lehen ikuskatze honetan jasotako datuekin, badirudi baldintza minimoak betetzen dituztela EUSKARAZ // markarekin jarraitzeko.
- 2025ean beste establezimendu bat sartu da Mungiako EUSKARAZ // sarera. Bertako arduradunarekin elkarrizketa egin ondoren, baldintzak ongi betetzen ditu, eta berak pozik hartu du gonbitea, beraz badugu beste establezimendu bat euskaraz // markarekin.

Bereizgarria lor dezaketen beste hiru lokal ere bisitatu ditu Hori-Hori enpresako teknikariak.

Horrenbestez halaxe gelditzen da zerrenda:

- 1.- ABIAR-SEGUROS BILBAO
- 2.- AHOLKULARIAK ABOKATUAK
- 3.- ARTZA KIROL MODA
- 4.- ASESORIA TORREALDAY
- 5.- ATLAS FISIOTERAPIA
- 6.- AXA ASEGUROAK
- 7.- AZULMARINO
- 8.- BIOLETA MUNDUAN
- 9.- BOOM VIDEO
- 10.- COMERCIAL JUMA
- 11.- CONSTRUCCIONES REMIT
- 12.- ELAIA AKADEMIA
- 13.- ELIOT SCHOOL
- 14.- ESTANCO BUTROI
- 15.- ESTANCO 2
- 16.- ESTETICA LIRAIN
- 17.- ESTUDIO DE DANZA ELAI
- 18.- EXPERT TROBIKA
- 19.- FOTO ARGI
- 20.- GAZTEBI PELUQUERIA

- 21.- GOLZARRI FARMAZIA
- 22.- GOROSTIDI BIZIKLETAK
- 23.- GUDAN FRUTA-DENDA
- 24.- GUREA MODAK
- 25.- GURELUR TABERNA
- 26.- I&I CENTRO DE BELLEZA
- 27.- IBINARRIAGA DISEINUA
- 28.- INMOBILIARIA URRUTIA
- 29.- ITURBURU INMOBILIARIA
- 30.- KLINICA MALAI
- 31.- LAN PC
- 32.- LASARTE HORTZ KLINIKA
- 33.- LEKUNE
- 34.- MAPFRE
- 35.- MERCERIA SANDRA
- 36.- MIRAK ARKITEKTURA
- 37.- MONTPELIER ESTILISTAS
- 38.- NAIA ILE-APAINDEGIA
- 39.- OPTICA MUNGIA
- 40.- PELUQUERIA LIRAIN
- 41.- PELUQUERIA CABALLEROS ZUBIAGA
- 42.- PETONPET
- 43.- RAFA HARATEGIA
- 44.- REVISTERO ALDAPA
- 45.- SUKALDETXU EROAN&EAT
- 46.- TESLA IKASGELA
- 47.- TORPEDO GORRIA
- 48.- URRUTIA JOLAS KIROLAK
- 49.- ZIRATS ESTILISTAK

Azaroan bideratutako bisitaldi hauen bitartez ziurtatu dezakegu EUSKARAZ BARRA BARRA eskuratuta duten establezimendu horiek baldintza minimoak betetzen dituztela. Hala ere, datu horiek guztiz fidagarriak izateko, ezinbestekoa da jarraipena egiten segitzea, izan ere, datuon berri zehatz jakitea oso zaila da bai sektoreak berak dituen ezaugarriengatik, bai datuak jasotzeko sistemagatik (erabilera aitortua).

Mungian, 2025eko urtarrilaren 26an

HORI HORI Merkataritza Teknikaria